

## Elkarteak

Sendagaien Kutxa Automatikoa Euskal Autonomia Erkidegoan eskuragarri egongo denez, Osakidetza gure bazkide garrantzitsuen izango da. Honek proiektua finantzatzeko baliabide ekonomiko nahiz juridikoak emango dizkigu. Osakidetzak, farmaziekin eta enpresarekin erlazio estua edukiko du.



Sendagaien kutxa automatikoaren funtzionamendu zuzenerako, hornitzaile eta bazkide sare bat egongo da, kutxa sortu, banatu eta mantentze lanetarako.

Honez gain, EUSFARE (Euskadiko Farmazien Elkartea) ere funtsezko bazkide bat izango da. Honi zerbitzua eskaintzen diogunez, hauekin harremanetan egongo gara, produktuari buruzko gorabeherak jasotzeko.

Gainera, makina egingo digun enpresa ere gure bazkide garrantzitsu bat izango da. Honi nolako makina nahi dugun jakinaraziko diogu eta behar ditugun aldaketak adieraziko dizkiegu.

Bestalde, distribuzio enpresa bat ere azpikontratatu dugu, gure zerbitzua farmazietara eroan ahal izateko. Mantentze-lanetarako beste enpresa bat ere edukiko dugu, matxurak konpontzeko.

